



10. AZTERKETARIA

AZALPENA:

Sarrera egiten du: izenburua, nondik hartutakoa den. Hala ere, sarreran nahastu egin ditu izenburua eta testuaren informazioa. Testuaren atal nagusiak ondo garatzen ditu.

Testuaren egituraketari dagokionez, alde makalena azpiatalen barruan egiten dituen loturena da; hau da, sarri errepikatzen du lokailu moduan “gero...” atal batetik bestera pasatzeko. Beste zenbaitetan, ordea, asmatzen du horretan: “beraz, lehen esan dudan bezala...”.

Gai da deskribapen argiak egiteko eta ideia zehatzak garatzeko. Azalpenak jariotasunez eta bat-batekotasunez ematen ditu eta berezko jarioa erakusten du. Erraz ulertzen da esaten duena.

Hori guztia zuzentasun gramatikala zainduta egiteko gai da, diskurtso ongi egituratua eta jarraipen onekoa sortuta.

Puntuazioa: 14

ELKARRERAGINA:

Egokitu zaion gaiaren tesia ondo defendatzen du. Gaiari sarrera orokorra egiten dio.

Solaskideak esandakoak une oro hartzen ditu kontuan eta gai da esandakoei erantzun eta ikuspuntu berriak gehitzeko. Ez dauka inolako arazorik hark esandakoa ulertzeko, are gehiago, ideiak biribiltzen laguntzen dio zenbaitetan. Hizkuntza malgutasunez erabiltzeko gai da.

Diskurtso zuzena eta aberatsa egiten du, ia ez du akatsik egiten eta oso jario naturala du.

Puntuazioa: 15

Aise eta ondo gainditzen du C1 mailan eskatutakoa.